



ARRISKUEN EBALUAZIOA

PREB. JARDUERAREN PLANGINTZA

| | | |
|---|--|--|
| 1 | Hurrengo esaldietatik zein da okerra: | |
| | A | Kalteak prebenitzeko era eraginkorrean oinarritzko jarduera da ARRISKUEN EBALUAZIOA. |
| | B | ARRISKUAREN EBALUAZIOA, berez, ez da helburu bat. Bitarteko bat da, enpresaburuak beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartzeko informazio egokia izan ditzan. |
| | C | ARRISKUEN EBALUAZIOA egitea gomendagarria da baina ez derrigorrez egitekoa. |
| 2 | Hurrengo esaldietatik zein da okerra: | |
| | A | ARRISKUEN EBALUAZIOA makinak dauden lanpostuetara mugatzen da. |
| | B | ARRISKUEN EBALUAZIOAK arrisku-maila onargarriak zehazteko eta ebaluazioaren ondorioz aplikatu beharreko neurrietan lehentasunak zehazteko aukera ematen du. |
| | C | ARRISKUEN EBALUAZIOAN sartuko da, baita ere, beharrezko neurketak, azterketak eta probak egitea. |
| 3 | Hurrengo esaldietatik zein da okerra: | |
| | A | ARRISKUEN EBALUAZIOAREN lehenengo urratsa enpresako lanpostuak identifikatzean data, ondoren, identifikatutako arriskuak analizatu ahal izateko. |
| | B | Analisiaren prozesuan, arriskuak eta elementu arriskutsuen eraginpean egon daitezkeen pertsona guztiak identifikatzea. |
| | C | ARRISKUEN EBALUAZIOA egiteko metodologia bakar bat dago, WILIAN FINE deiturikoa, alegia. |
| 4 | Arrisku bakoitzaren BALORAZIOA egin behar da, zera adieraziz: | |
| | A | Gertatzeko PROBABILITATEA. |
| | B | Sor ditzakeen kalteak (ondorioak) izan dezaketen LARRITASUNA. |
| | C | Sor ditzakeen kalteak (ondorioak) izan dezaketen LARRITASUNA eta gertatzeko PROBABILITATEA. |
| 5 | Ustekabeko egoeraren ondorioak edota kaltearen LARRITASUNA, hots, izandako eragina da aztertu beharreko aldagai bat. Erreferentziatzko irizpideak hauek izan daitezke: | |
| | A | ONARGARRIA edo EZ ONARGARRIA. |
| | B | ARINA, LARRIA edo HILGARRIA. |
| | C | ARINKI KALTEGARRIA, KALTEGARRIA eta OSO KALTEGARRIA. |

| | | |
|---|--|---------------------|
| 6 | Nola kalifikatuko litzateke arriskua gauzatuz gero osasunean izandako kaltea anputazioa izan daitekeela aurreikusten bada: | |
| | A | ARINKI KALTEGARRIA. |
| | B | KALTEGARRIA. |
| | C | OSO KALTEGARRIA. |

| | | |
|---|--|---|
| 7 | Zer egin behar da arriskua BALORATU ondoren ondorioen maila JASANEZINA dela aurreikusten bada: | |
| | A | Bigarren ebaluazio bat egitea eskatu behar da. |
| | B | Mutuari jakinarazi behar zaio. |
| | C | Arriskua gutxitu arte ez da lanean hasi edo jarraitu behar. |

| | | |
|---|---------------------------------------|---|
| 8 | ARRISKUEN EBALUAZIOA egin beharko da: | |
| | A | Enpresa mota guztietan. |
| | B | 50 langiletik gora dituzten enpresetan. |
| | C | Lan-istripuan hildakoak egon direnean. |

| | | |
|---|--|--|
| 9 | Nork egin behar du ARRISKUEN EBALUAZIOA: | |
| | A | Kanpoko Prebentzio Zerbituak. |
| | B | Mutuak. |
| | C | Enpresaburua da arduraduna baina aukera ezberdinak ditu, izan ere, legeak ez du ezartzen zer pertsonak edo erakundek egin dezaketen. |

| | | |
|----|---------------------------------------|---|
| 10 | Hurrengo esaldietatik zein da okerra: | |
| | A | PREBENTZIO-JARDUEREN PLANIFIKAZIOA egiteko, kontuan hartu behar dira exekuzio-faseak eta epeak. |
| | B | Plangintza eta haren ekintza bakoitzerako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak edo ekonomikoak zehaztuko dira. |
| | C | Planean aurreikusitako ekintza edo jarduera bakoitza betetzeko, soilik arduradun bakar bat esleitu da. |

| | | |
|----|---|--------------------------------------|
| 11 | Ebaluatu behar diren laneko arriskuak hauexek dira: | |
| | A | Arrisku guztiak. |
| | B | Arrisku larriak baino ez. |
| | C | Saihestu ezin diren arrisku guztiak. |

| | | |
|----|--|---------------------------------|
| 12 | Zer hartu behar da kontuan, nagusiki, arriskuen ebaluazioan: | |
| | A | Diru-aukerak. |
| | B | Dagoen teknologia. |
| | C | Probabilitatea eta larritasuna. |

| | | |
|----|--|--|
| 13 | Enpresan lan-ekipo berri bat sartzen denean eta hasierako arriskuen ebaluazioa dagoeneko eginda dagoenean, berriz egin behar da? | |
| | A | Ez, hasierako ebaluazioa derrigorrezkoa den bakarra baita. |
| | B | Ez, soilik ekipo horrek lan-istripu bat eragin badu. |
| | C | Bai, sor ditzakeen arrisku berriak identifikatu eta ebaluatu behar dira. |

| | | |
|----|--|--|
| 14 | Zergatik egin behar da arriskuen ebaluazioa: | |
| | A | Arrisku saihestezinetarako lege-eskakizuna delako. |
| | B | Ebaluazioaren emaitzen arabera prebentzio-neurri egokiak ezartzeko balio dutelako. |
| | C | Aurreko biak. |

| | | |
|----|---|--|
| 15 | Ebaluatzeko prozesuaren etapak gauzatzeko orden egokia honakoa da : | |
| | A | Arriskuak identifikatu, aztertu, baloratu eta neurriak bideratu. |
| | B | Arriskuak identifikatu eta neurriak bideratu. |
| | C | Ez dago orden jakin bat ezarrita. |

| | | |
|----|--|---------------------|
| 16 | Kalkulatu ondorengo kasuaren arriskua: PROBABILITEA ertaina eta ZORROZTASUNA oso kaltegarriak. | |
| | A | Arrisku xumea. |
| | B | Arrisku onargarria. |
| | C | Arrisku handia. |

| | | |
|----|---|---------------------|
| 17 | Kalkulatu ondorengo kasuaren arriskua: PROBABILITEA handia eta ZORROZTASUNA oso kaltegarriak. | |
| | A | Arrisku onargarria. |
| | B | Arrisku handia. |
| | C | Arrisku onartezina. |

| | | |
|----|--|---|
| 18 | Arriskua baloratzeko garaian, zere gin beharko litzateke arrisku maila neurrizkoa dela erabaki denean: | |
| | A | Egin ohi diren jarduerak ez dira hobetu behar. |
| | B | Arriskua kentzeko hobekuntzak egin behar dira, baina neurriok epe ertainera egin daitezke. |
| | C | Ezin da lanean hasi arriskua kendu arte. Zenbait kasutan lanpostu horretan lan egitea debeka daiteke. |

| | | |
|----|--|---|
| 19 | Zein motatako PREBENTZIO-TEKNIKA da SEGURTASUN-IKUSKAPENA: | |
| | A | Istripuaren aurreko teknika analitikoa. |
| | B | Istripuaren ondorengo teknika analitikoa. |
| | C | Teknika operatiboa. |

| | | |
|----|---------------------------------------|---|
| 21 | Hurrengo esaldietatik zein da okerra: | |
| | A | SEGURTASUN-IKUSKAPENA lantokietan egon daitezkeen arriskuak identifikatzeko balio duen tresna da. |
| | B | SEGURTASUN-IKUSKAPENEN helburu nagusia produkzioa hobetzea da. |
| | C | SEGURTASUN-IKUSKAPENA identifikatutako arriskuak kontrolatu ahal izateko bitarteko bat da. |

| | | |
|----|---|--|
| 21 | Zein da SEGURTASUN-IKUSKAPENAREN helburu nagusia: | |
| | A | Arrisku-egoera potentzialak identifikatzea. |
| | B | Identifikatutako arrisku-egoerak seinaleztatzea. |
| | C | Identifikatutako arriskuak kontrolatzeko prebentzio-neurriak ezarri ahal izatea. |

| | | |
|----|-------------------------|---------------------------------------|
| 22 | SEGURTASUN-IKUSKAPENAK: | |
| | A | ARRISKUEN EBALUAZIOA ordezkatzeko du. |
| | B | ARRISKUEN EBALUAZIOA osatzen du. |
| | C | LANEKO BEHAKETAK ordezkatzeko ditu. |

23

Ez dira SEGURTASUN-IKUSKAPENEN helburuak:

- | | |
|----------|---|
| A | Istripu bat eragin dezaketen baldintza material ez seguruak hautematea. |
| B | Langileen eraginkortasuna kontrolatzea. |
| C | Arrisku larriko eta berehalako egoera ez-seguruak berehala konpontzea. |

24

Noiz egin behar dira SEGURTASUN-IKUSKAPENAK:

- | | |
|----------|--|
| A | Lanorduetatik kanpo. |
| B | Dentro del horario de trabajo pero con las máquinas e instalaciones paradas. |
| C | Lanorduetan eta instalazioak funtzionamendu normalean daudela. |

25

Ez dira SEGURTASUN-IKUSKAPENEN helburuak:

- | | |
|----------|---|
| A | Laneko prozeduren beharra, egokitasuna edo gabeziak egiaztatzea. |
| B | Langileen iradokizunak jasotzea, lan-metodoen prozedurak hobetzeko. |
| C | Langileen ausentziak lanpostuetan kontrolatzea. |